

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

**Ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak— garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta hori arautuko duten oinarriak. 2018. urtea**

2017ko abenduaren 1ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2018ko diru-laguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2018ko urtarrilaren 22ko ALHAOn —9. zk.— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

2018ko ekainaren 29an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak— garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautuko duten berariazko oinarriak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrak jakinaren gainean egon daitezten:

#### **1. oinarria. Diru-laguntzen ildoak**

Ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko nahiz gidoiak idazteko laguntzak.

#### **2. oinarria. Deialdiaren xedea**

— Ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak— garatu eta ekoizteko eta film luzeen gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek —norgehiagoka baliatuko da horretarako—.

— Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

#### **3. oinarria. Laguntza-modalitateak**

Hauek izango dira laguntzen modalitateak:

1. Zinema- eta telebista-proiektuak garatzeko laguntzak, oinarri hauetako I. kapituluaren adierazten denaren ildotik.

2. Ikus-entzunezko obrak ekoizteko modalitate hauetarako laguntzak, oinarri hauetako II. kapituluaren adierazten denaren ildotik.

a) Zinema-film luzeak —fikzioa eta animazioa— eta sorkuntza-dokumentalak ekoizteko laguntzak (I. atala).

b) Film laburrak ekoizteko laguntzak (II. atala).

3. Gidoiak idazteko laguntzak, oinarri hauetako III. kapituluaren adierazten denaren ildotik.

#### **4. oinarria. Enpresa eta pertsona onuradunen betebeharrak**

1. Enpresaren egoitza eta helbide fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.

2. Zinema- eta telebista- proiektuak garatzeko laguntzei eta ikus-entzunezkoak egiteko laguntzei dagokienez, pertsona fisiko nahiz juridiko pribatu independenteak izan daitezke onuradun (3. oinarriko 3.1, 3.2.a eta 3.2.b modalitateak), horien ekonomi jardueren gaineko zergaren epigrafea laguntza eskatzen duten jarduerari dagokiona bada. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, diru-laguntzaren prozesu osoan ere bete behar dira betebeharrak —diru-laguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

Honakoak joko dira pertsona pribatu independentetzat: ikus-entzunezkoen komunikazio/ zabalkunde arloko zerbitzuak ematen dituen entitate baten edo telebista-kanal pribatu baten titular baten eragin menderatzaileen agindupean ez dauden pertsona fisiko edo juridikoak, eta aldi berean, beraiek eragin menderatzaile hori erabiltzen ez badute: ez jabetza arrazoiengatik, ez finantza-partaidetzagatik ez eta kasuan kasuko administrazio- edo kudeaketa- organoen erabakiak baldintzatzeko ahala edukitzeagatik ere. Ekonomia-intereseko taldeak hauen parekotzat joko dira, beren helburu soziala, Merkataritza Erregistroko inskripzioaren arabera, ekoizpen-jarduerak egitea delarik.

3. Gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (3. oinarriko 3.3 modalitatea), jarduera profesionalizat gidoiak idaztea duten pertsona fisikoak izan daitezke onuradunak (EJZn dagokien epigrafean), baldin eta Jabetza Intelektualaren Erregistroan gutxienez film luze bat erregistratuta badute bere izenean. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, diru-laguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori —diru-laguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

4. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak eta abar).

5. Onuradunak betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko udalarekikoak beteta izan behar dituzte - 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraiki egiaztatetik salbuetsita badaude izan ezik-, bai emakida ebatzi aurretik eta diru-laguntza ordaindu aurretik. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, diru-laguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori —diru-laguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

6. Laguntza hauek eskuratu ahal izateko ezinbestekoa da administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenaren arabera sexu arrazoiengatik diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

7. Bateriaezinak dira proiektuak garatzeko eta gidoiak idazteko modalitateak. Proiektu bat bi laguntza modalitate horietako bakarrean aurkez daiteke aurrekontu-ekitaldi berean.

8. Eskatzaile bakoitzak hainbat proiektu aurkezteko aukera gorabehera, pertsona edo enpresa onuradun bakoitzeko eta modalitate bakoitzeko proiektu bakarrerako eman ahal izango da laguntza.

9. Edonola ere, aurreko udal deialdietan laguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira laguntza jaso zuten modalitate berean aurkeztu.

#### **5. oinarria. Baliabide ekonomikoak**

Partida hauen kontura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak:

– “Ikus-entzunezkoak garatu eta ekoizteko laguntzak” izeneko 2018/ 08.21.4331.471.29 partida. 50.000,00 euroko zuzkidura du.

– “Sorkuntzarekiko lotutako industrientzako enplegu-laguntzak” izeneko 2018/ 08.21.4331.471.02 partida. 50.000,00 euroko zuzkidura du.

Hirugarren oinarrian jasotako modalitateen artean banatuko da zenbateko guztia, honela banatuta:

– Zinema- eta telebista-proiektuak garatzeko laguntzak: 25.000,00 euro.

– Zinema- film luzeak eta sorkuntza-dokumentalak ekoizteko laguntzak: 40.000,00 euro.

– Film laburrak ekoizteko laguntzak: 25.000,00 euro.

– Gidoiak idazteko laguntzak: 10.000,00 euro.

## 6. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldez aurretik Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdia indarrean jartzen delarik zabalduko da eskabideak aurkezteko epea, eta deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 20 egun naturaleko epea igarotzen delarik bukatuko. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea. Pertsona eta entitate interesdunek eskabide bana aurkeztu beharko dute aurkezten diren modalitate bakoitzeko.

Deialdi honen eranskinetako ereduaren arabera aurkeztu behar dira eskabideak.

## 7. oinarria. Balioespen-irizpideak, diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Balioespena egiteko, proiektuak alderatu egingo dira, oinarri hauetan biltzen diren diru-laguntzen modalitateetako bakoitzeko adierazten diren balioespen-irizpideak aintzat harturik alderatu ere —I. kapitulutik III.era bitartean—.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik; alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta —ezarritako diru-laguntzen gehieneko muga errespetatzen delarik— modalitateetako bakoitzeko balioespen-irizpideetara ongien egokitzen diren eskabideek bakarrik jasoko dute laguntza.

## 8. oinarria. Diru-laguntzak emateko prozedura

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako hauek osatua:

Lehendakaria: Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua, edo ordezkari izendatzen duena.

— Kideak: deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional, Gasteizko Udalak izendatuak:

1. epaimahaikidea. Titularra: Aitor Arenas. Banatu Filmak enpresako CEO (ikus-entzunezkoen arloko enpresa ekoizlea eta banatzailea).

2. epaimahaikidea. Titularra: Esther Cabero. Eusko Jaurlaritzaren Kimuak programaren koordinatzailea.

3. epaimahaikidea. Titularra: Patxi Azpillaga. EHUko ikus-entzunezkoen ekoizpeneko irakasle eta ikus-entzunezkoen ekoizlea.

— Idazkaria: Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko teknikari bat, ahotsa bai baina botorik gabe.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira laguntzak, batzorde teknikoak proposaturik, eskumen hori Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Balioespen-batzordeetarako izendatutako aditu profesionalek erantzukizunpeko aitordpena aurkeztu beharko dute, ez daudela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-kausetako batean ere, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa deialdian finkatutako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko baino ez dutela erabiliko, eta, ebaipen-proposamena egin ondoren, dosierretako dokumentazio guztia deialdia kudeatzen duen organoari itzuliko diotela.

Balioespen-batzordeak eratzeko orduan, Gizon eta Emakumeen berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

**9. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea**

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik kontatuta. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, diru-laguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa izango dira.

**10. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak**

a) Emandako laguntza onartzea. Hain zuzen ere, hamabost eguneko epean pertsona edo entitate onuradunek laguntzari berariaz uko egiten ez badiote —eman izanaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik kontatuta—, onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Laguntza zertarako eman zaien, horretarako baliatzea.

c) Diru-laguntza jasotzen duen proiektua deialdira aurkeztu den moduan gauzatzea. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako proiektuan funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Gasteizko Udalari, berariaz eta alde zuzenetik. Berariaz baimentzen delarik bakarrik onartu ahalko da aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

d) Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

e) Deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzeko bestelako laguntza edo diru-laguntzarik jasoz gero, Gasteizko Udalari jakinaraztea, Estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emana izanik ere.

f) Egokitzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie Udalak diru-laguntza eskatzen duten pertsona edo entitateei, eskabidea behar bezala baloratu ahal izateko.

g) Diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsona eta entitateek Gasteizko Udalaren laguntza izan dutela azaldu beharko dute, argi eta garbi, publizitaterako baliatzen dituzten bitarteko guztietan. Era berean, udal-finantzaketaren berri eman beharko dute, baita Gasteizko Udalaren logotipoa jarri ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten hedabideetan.

h) Gasteizko Udalari argitaratzen dituzten promozio-material guztien ale bana ematea.

i) Deialdi honetako laguntza-modalitate bakoitzerako ezarritakoak, eta Gasteizko udalaren aurrekontuen kontura ematen diren laguntzetarako ezarritako betebeharrak eta baldintza oro.

**11. oinarria. Bestelako diru-laguntzekiko bateragarritasuna**

Gasteizko Udalak ematen dituen diru-laguntzak bateragarri izango dira beste administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuek ematen dituztenekin, gidoiak idazteko laguntzen modalitatean izan ezik.

Modalitatearen arabera ezarritako mugak gorabehera, diru-laguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu, inolaz ere, dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina batera. Gain-finantzaketarik gertatuz gero, murriztu egingo da emandako laguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugara arte.

**Diru-laguntza jaso dezaketen modalitateak**

## I. kapitulua

## Proiektuak garatzeko laguntzak

**12. oinarria. Diru-laguntzaren gai izan daitezkeen ekintzak eta gastuak**

1. Genero hauetakoren batean sartzen diren zinema- eta telebista-proiektuetarako eman ahal izango dira diru-laguntzak, adierazten den iraupena dutelarik:

## • Zinemarako lanak:

— Fikzioa, animazioa eta sorkuntza-dokumentalak: 60 minutu.

## • Telebistarako lanak:

— Fikzioa, sorkuntza-dokumentalak eta animazioa —banako proiektuak—: 45 minutu.

— Fikzioa, dokumentalak —telesailak—: 22 minututik 50era.

— Animazioa —telesailak—: minutu 1etik 25era.

2. Film laburrak modalitate honetatik kanpo geratzen dira.

3. Ikus-entzunezko ekoizpenaren prestakuntza- eta diseinu lanak joko dira "proiektuen garapentzat", kasu guztietan, produkzio-fasearen beraren aurretik egin beharrekoak:

4. Aurreko udal deialdietan laguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira laguntza jaso zuten modalitate berera aurkeztu.

5. Hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak:

a. Obraren egile-eskubideak eskuratzea.

b. Gidoia garatzea: berridazketa edo egokitzapena, kanpoko aholkularitza, itzulpena. Jasotzen den diru-laguntzaren ehuneko 20, gutxienez, gidoia garatzeko baliatu behar da.

c. Promozio-materiala diseinatu eta presatzea: inprimatutako materiala, teaser, trailerra, programa pilotua, storyboard, web orria

d. Marketing- eta banaketa-plana lantzea.

e. Koproduzioko foroetara eta azoketara joatea: joan-etorriak, ostatua eta akreditazioak

f. Castingak eta kokalekuak bilatzea

g. Ikerketa dokumentala, grafikoa —animazio-proiektuetan— eta artxibo-bilaketa,

h. Garapena kudeatzeko langile-gastuak (aurrekontuaren ehuneko 15, gehienez)

i. Aurkeztutako proiektuaren aholkularitza juridikoa eta fiskala: aholkularitza eta koproduzio-kontratuak idaztea, aurre-salmentak, obraren gaineko eskubideak, proiektuan parte hartzen duten profesionalen kontratuak.

j. Gastu orokorrak (aurrekontuaren ehuneko 5, gehienez).

6. Onuradunak proiektua garatzeko aurrekontuaren gutxienez ehuneko 50 bizilekua edo egoitza Gasteizen duten pertsona fisiko nahiz juridikoek egindako lanetara bideratu behar du. Koprodukzioen kasuan, onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari aplikatuko zaio ehuneko 50eko portzentaje hori.

**13. oinarria. Eskabideak eta nahitaezko agiriak**

Eskabideak tramitatzeke moduaren inguruko xehetasunak Gasteizko Udalaren oinarri orokorretan daude jasota.

Modalitate honetan diru-laguntza jasotzeko eskabideari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

1. Kontratutako pertsoneri dagozkien agiriak.

1.1. Pertsona fisikoa izanez gero:

a) Nortasun-agiriaren fotokopia.

b) Dagokion ekonomi Jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

c) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, koprodukzioa).

1.2. Pertsona juridikoa izanez gero:

a) IFZren fotokopia.

b) Eratze-eskiturak eta estatutuak (eta gerora izandako aldaketak), baita dagokien erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

c) Dagokion ekonomi Jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

d) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, koprodukzioa).

e) Legezko ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia eta ordezkaritza-ahalmenaren egiaztagiria, dena delako organoak emandako ahalordetza-eskitura edo ziurtagiri bidez.

2. Proiektuari dagozkion agiriak.

a) Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen erantzukizunpeko aitortpena, I. eranskinaren arabera.

b) Lortutako diru-laguntzei dagozkien ebazpen ofizialen kopia, non jasotako zenbatekoa agertu behar den (I. eranskinean zehaztutako laguntzak).

c) Proiektuaren oroitidazkia, non azaldu beharko den proiektua garatzeko aurreikusitako ekintza guztien deskribapen zehatza.

d) Gidoiaren sinopsia.

e) Gidoia edo, halakorik ezean, gidoiaren trataera (gehienez 30 orri). Telesailen kasuan, kapitulu baten gidoi osoa eta gainerako gidoiaren sinopsia.

f) Jatorrizko gidoiaren edo alde zuzeneko obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen egiaztapena, edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiaztatzen duen agiria.

g) Proiektuaren garapenaren aurrekontu xehatu eta partidaz partida banakatua, aurreikusitako gastu guztiak jasotzen dituena, baita diru-sarreraren aurreikuspena ere, II. eranskinean ageri den ereduari jarraiki.

h) Produkzioaren aurrekontu orientagarri orokorra eta finantzaketa-plana.

i) Zuzendariaren eta gidoilariaren ibilbide artistiko profesionala.

j) Zuzendariak ez badu lehendik film luzerik egin, baina bai film laburrik edo telesailik, aurretik egindako film labur edo telesail horien artetik hautatutako lanen kopiak.

k) Zuzendariak eta gidoilariak garapen-lanak egiteko izenpetutako akordioa.

l) Proiektuaren garapenean parte hartuko duten arduradun teknikoek eta artistikoek sinatutako erantzukizunpeko aitortpenak edo interes-gutunak, Berariaz adierazi beharko da kontratatutako zein enpresa edo pertsonak duen egoitza edo bizilekua Gasteizen.

m) Produkzio-etxearen ibilbidea eta hurrengo bi urteetako ekoizpen-aurreikuspenak, III. eranskinean ageri den ereduari jarraiki.

n) Zuzendaritza-, ekoizpen-, gidoigintza-, argazki zuzendaritza- eta musika konposizio-lanetan emakumeen presentzia egiaztatzen duen dokumentazioa, hala izanez gero.

#### **14. oinarria. Hautatu eta balioesteko irizpideak**

1. Jasotako eskabideak aztertuko ditu balioespen-batzordeak, eta zehaztutako alderdietako bakoitza ebaluatuko, ondoren adierazten den baremoa aintzat harturik:

a) Aurrekontuaren eta finantzaketa-planaren egokitasuna: gehienez 30 puntu.

– Aurrekontua proposatutako garapenera egokitzen den: gehienez 10 puntu.

– Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta finantziarioa (finantzaketa pribatua eta enpresaren arrisku ekonomikoa): gehienez 10 puntu.

– Proiektuak koprodukziorako eta nazio zein nazioartean hedatzeko duen ahalmena: koproduktoreak, produktore elkartuak eta banatzaileak bilatzeko plana: gehienez 10 puntu.

b) Gidoiaren kalitatea: gehienez 30 puntu.

– Orijinaltasuna, sormena eta kalitate literarioa: gehienez 10 puntu.

– Idazketa eta garapena: gehienez 10 puntu.

– Zinemara eramateko bideragarritasuna: gehienez 10 puntu.

C) Implikatutako enpresa- eta giza- baliabideak: gehienez 10 puntu.

Ekoizpen-etxearen, zuzendariaren eta gidoigilearen curriculumak. Aldez aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, eta —egindako proiektuen kopurua baino gehiago— ikusle goarengan izandako eragina eta lortutako balorazioa eta jaialdietan lortutako sariak, baita komunikabide espezializatuetan agertutako kritikak ere.

d) Proiektuaren interesa: gehienez 10 puntu.

Bereziki baloratuko dira Gasteizko nahiz bertako herritarren errealitate kultural, sozial, linguistiko edo beste edozein arlotakoarekin lotzeko eskaintzen dituen aukerak.

e) Jatorrizko bertsioa euskaraz: gehienez 10 puntu.

Halakotzat jotzeko, gidoia edo gidoiaren trataerak euskaraz idatziak izan behar dute. Gaztelaniazko itzulpena gehitu ahalko zaio, balioespen batzordeko kideen balioespena errazteko.

f) Emakumeen parte-hartzea hainbat zereginetan (zuzendaritza, ekoizpena, gidoigintza, argazki-zuzendaritza eta musika konposizioa): gehienez 10 puntu.

– Zuzendaria emakumea bada: 3 puntu.

– Ekoizle exekutiboa emakumea bada: 3 puntu.

– Gidoilaria emakumea bada: 2 puntu.

– Argazki-zuzendaria emakumea bada: puntu 1.

– Musika-konpositorea emakumea bada: puntu 1.

2. Aurkeztutako proiektuak diru-laguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, adierazitako irizpide eta puntuazioen arabera.

**15. oinarria. Proiektuak balioestea eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

1. Diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 50eko diru-laguntza emango da, eta gehienez 9.000,00 euro.
2. Proiektua garatzera bideratutako aurrekontua ez da izango ekoizpen guztiaren aurrekontuaren ehuneko 20 baino gehiago.
3. Laguntza koprodukzio baterako eskatzen delarik, eskatzaileak gutxienez bukaerako produkzioaren ehuneko 20ko partaidetza izan behar du, eta Gasteizko Udalaren diru-laguntza inolaz ere ezingo da izan ekoizlearen benetako partaidetzaren ehuneko 50etik gorakoa.
4. Bestelako diru-laguntza publikorik jasoz gero, guztien batura -deialdi honetakoak barne- ezingo da proiektua garatzeko kostearen ehuneko 50etik gorakoa izan.
5. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 14. oinarriko a) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, oinarri bereko b) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.
6. Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen diru-laguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua aplikatuko zaio horri.

**16. oinarria. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea**

1. Honela tramitatuko da proiektuak garatzeko ematen diren laguntzen ordainketa:
    - Laguntza ematen delarik, laguntzaren ehuneko 80a ordainduko da.
    - Gainerako ehuneko 20a, dokumentazio hau jasotzen denean, eta, nolana ere, 2019ko azaroaren 1.aren aurretik:
      - Egindako jardueri eta lortutako emaitzei buruzko txostena.
      - Behin betiko aurrekontua, eredu ofizialaren arabera. Eredua Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) web orrian lor daiteke.
      - Garapen-gastuen zerrenda sailkatua, BEZik gabe, hartzekoduna eta agiria identifikaturik, eta horren zenbatekoa, jaulkipen-data eta, egin bada, ordainketaren data.
      - Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatua —jatorrizko fakturak edo kopia erkatuak—, eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak.
      - Gidoi osoa, zuzenduta.
      - Gidoigilearekin edo gidoigileekin eskubideak lagatzeko sinatutako kontratua —gutxienez bi urterako—, edo garatu nahi den obraren gaineko eskubideak erosteko aukera ematen duen kontratua —gutxienez bi urterako—.
      - Lan-planaren banakatze berria, eta ekoizpenaren behin-behineko aurrekontu berria.
      - Filmatuko den lekuei buruzko dokumentazioa.
      - Behin behineko casting-proposamenak.
      - Finantzaketa-plan xehatua.
      - Banaketa-plan xehatua.
- Dokumentazio hori aurrez aurre aurkeztu ahal izango da Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoetan, ordutegi ofizialaren barruan.



2. Gainera, bigarren ordainketa egin dadin, 12.5 b), 12.6 eta 15.3. oinarrietan ezarritako baldintzak bete dituela egiaztatatu beharko du onuradunak.

3. Laguntzaren justifikazioa laguntza eskuratzeko kontuan hartu den aurrekontuaren ehuneko 75era iristen ez bada, proportzionalki gutxituko da, eta ehuneko 75 hori izango da diru-laguntza kalkulatzeko oinarri berria, 15.1 oinarria aplikatzea gora behera.

## II. kapituluak

### Ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzak

#### **17. oinarria. Diru-laguntzaren gai izan daitezkeen ekintzak eta gastuak**

1. Ekoizpen-modalitate hauetarako emango dira laguntzak:

a) Zinema-film luzeak eta sorkuntza-dokumentalak ekoiztea, kapitulu honen I. atalean adierazten denaren ildotik.

b) Film laburrak ekoiztea, kapitulu honen II. atalean adierazten denaren ildotik.

2. Aurreko udal deialdietan laguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira laguntza jaso zuten modalitate berera aurkeztu Halaber, ezingo dira deialdi onetara aurkeztu deialdi hau argitaratu aurretik estreinatzen diren obrak.

3. Diruz laguntzeko gastuak izango dira filmaren kostua aitortzea eta ekoizlearen inbertsioa arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 aginduak 2. artikuluan aurreikusitako ekoizpen-kostuak.

#### **18. oinarria. Eskabideak eta dokumentazioa**

Ekoizpen-modalitateetan diru-laguntza jasotzeko eskabideari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

1. Kontratututako pertsonen dagozkien agiriak.

1.1. Pertsona fisikoa bada:

a) Nortasun-agiriaren fotokopia.

b) Dagokion Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

c) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, koprodukzioa).

1.2. Pertsona juridikoa izanez gero:

a) IFZren fotokopia.

b) Eratze-eskritturak eta estatutuak (eta izandako aldaketak), baita dagokien erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

c) Dagokion Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

d) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, koprodukzioa).

e) Legezko ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia eta ordezkaritza-ahalmenaren egiaztatagiria, dena delako organoak emandako ahalordetza-eskrittura edo ziurtagiria bidez.

2. Proiektuari dagozkion agiriak.

a) Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen deklarazioa, I. eranskinaren arabera.

b) Lortutako diru-laguntzei dagozkien ebazpen ofizialen kopia, non jasotako zenbatekoa agertu behar den (I. eranskinean zehaztutako laguntzak).

- c) Proiektuaren oroitidazkia.
- d) Gidoiaren sinopsia.
- e) Gidoia.
- f) Jatorrizko gidoiaren edo aldez aurreko obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen egiaztapena, edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiaztatzen duen agiria.
- g) Garapenaren aurrekontua, partidatan banatuta, eredu ofizialaren arabera. Eredua Zine-  
matografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) web orrian lor daiteke.
- h) Ekoizpen-plana.
- i) Finantzaketa-plana, IV. eranskineko ereduari jarraiki. Egiaztatzekeo agiriak erantsi behar dira.
- j) Fitxa teknikoa eta artistikoa. Partaidetza egiaztatu behar da, eta halakorik bada, Gasteizko  
egoitza edo kokalekua.
- k) Zuzendariaren, gidoigilearen eta produktorearen ibilbide profesionala.
- l) Proiekturako proposatutako zuzendariaren idatzizko onespina.
- m) Aurreikusitako egutegia eta filmaketarako plana, denbora eta lekuak zehaztuz. Berariaz  
adierazi behar da Gasteizen filmatuko den egun kopurua.
- n) Merkaturatze- eta banaketa-plan xehea.
- o) Koprodukzio-kontratuaren edo kontratuen kopia erkatuak:
  - Nazioarteko koprodukzioak: Zine-  
matografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuak  
koprodukzio-proiektua onesten dueneko ebazpena, eta koproduktore guztiek sinatutako kon-  
tratuaren azken bertsioa.
  - Koprodukzio nazionalak: koproduktore guztiek fede-emaile publikoaren aurrean sinatu-  
tako kontratuaren azken bertsioa.
- p) Produkzio-etxearen ibilbidea eta hurrengo bi urteetako ekoizpen-aurreikuspenak, III. erans-  
kinean ageri den ereduari jarraiki.
- q) Zuzendaritza-, ekoizpen-, gidoigintza-, argazki zuzendaritza- eta musika konposizio-lanetan  
emakumeen presentzia egiaztatzen duen dokumentazioa, hala izanez gero.
- r) Eskatzailearen kaudimen ekonomikoa egiaztatzen duen agiria (21.1.b artikuluan jasoa)

### **19. oinarria. Helburu bererako diru-laguntzak**

Ikus-entzunezkoetarako beste laguntza publikorik izanez gero, guztien batura ezingo da izan diruz lagun daitezkeen kosteen ehuneko 50etik gorakoa, salbu eta ikus-entzunezko obra zailak badira. Kasu horretan ehuneko 100koa izan daiteke. Ikus-entzunezko obra zailtzat joko dira ja-  
torriko bertsioa euskaraz dutenak eta aurrekontu txikiko (800.000,00 baino gutxiago) fikziozko  
film luzeak izanik zuzendariaren lehen edo bigarren lanak.

#### *l atala*

*Zinema-film luzeak ekoizteko laguntzak —fikzioa, sorkuntza-dokumentalak eta animazioa—*

### **20. oinarria. Laguntza jaso lezaketan jarduerak**

1. Modalitate honetan, zinema-film luzeak —fikzioa, sorkuntza-dokumentalak eta anima-  
zioa— egiteko laguntzak emango dira, edozein hizkuntzatan egiten direlarik ere.
2. Honelakoak joko dira fikzio- edo animazio-film luzetzat: ikus-entzunezko obrak, gutxienez  
hirurogei minutuko iraupena dutenak, zinema-aretoetan merkataritza-ustiapena egiteko asmoz  
eginak.

3. Honelakoak joko dira sorkuntza-dokumentaltzat: gaia errealitatekin hartua duten proiektuak, aldi berean lan originalak direnak —gai jakin baten inguruko ikerketa edo analisia egiten—, gutxienez ordubete komertzialeko iraupena dutenak, zinemari nahiz telebistan emateko eginak.

4. Onuradunak ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuaren gutxienez ehuneko 32 bizilekua edo egoitza Gasteizen duten pertsona fisiko nahiz juridikoek egindako lanetara bideratu behar du. Koproduzioen kasuan, onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari aplikatuko zaio ehuneko 32ko portzentaje hori.

### **21. oinarria. Hautatu eta balioesteko irizpideak**

Modalitate honetako eskabideak bi fasetan balioetsiko dira, ondoren adierazten diren irizpen eta baremo hauei jarraiki:

1. Lehen fasea: ekoizpen-proiektuaren balioespina: gehienez 65 puntu.

a) Proiektuaren finantzaketa: gehienez 25 puntu.

Errealizazio-aurrekontu osoaren gaineko finantzaketa-baliabideen ehunekoaren arabera emango dira, behar bezala egiaztatzen direlarik laguntza edo diru-laguntzak jasotzeko eskubi-deen egiaztagirien bitartez edo hirugarrenekin dagoneko sinatutako ustiapen-kontratuen bitartez —eskubideak lagatzeko kontratuak nahiz produkzio- eta banaketa-kontratuak—, edo, baliabide propioen kasuan, banku baten nahiz elkarren bermerako sozietate baten abalaren bitartez, eta kapitalizazioak, film luzearen aurrekontuaren ehuneko 15era arte.

Koprodukzio-kontratuen kasuan, koproduttore diren pertsona edo enpresek laguntzak jasotzeko dituzten eskubi-deen egiaztagiria, ustiapen-kontratuak edo banku-egiaztagiria erantsi beharko dira, halakorik izanez gero. Puntuak modu proportzionalen esleitu dira, eta finantzaketa-ehunekorik handiena egiaztatzen duen eskatzaileari —ehuneko 60ko gehieneko finantzaketa-mugarekin— goreneko puntuazioa emango.

b) Eskatzailearen kaudimen ekonomikoa eta ibilbidea: gehienez 7 puntu.

Egin eta estreinatutako film luzeen kopurua, leihatilako emaitzak, zein zinemalditarako aukeratuak izan diren eta zein sari lortu dituzten, enpresaren antzintasuna eta azken bi urteetako emaitzen kontua eta balantzeak kontuan harturik emango dira.

c) Gasteizen filmatzea: gehienez 13 puntu.

Gasteizen filmatzen egiten diren egunak kontuan hartuta emango dira —filmatze-lanen iraupen osoaren gaineko ehunekoak—.

d) Inplikaturako enpresa- eta giza baliabideak: gehienez 10 puntu.

Gasteizen bizi diren pertsonen edo egoitza bertan duten enpresek eskaintzen dituzten baliabideak —sorkuntza-baliabideak nahiz baliabide artistiko eta teknikoak— kontratatzeke egiten den inbertsioaren ehunekoak —proiektuaren aurrekontu osoaren gainean— kontuan harturik emango dira.

e) Emakumeen parte-hartzea hainbat zereginetan (zuzendaritza, ekoizpena, gidoigintza, argazki-zuzendaritza eta musika konposizioa): gehienez 10 puntu.

— Zuzendaria emakumea bada: 3 puntu.

— Produktore exekutiboa emakumea bada: 3 puntu.

— Gidoilaria emakumea bada: 2 puntu.

— Argazkilaritza zuzendaria emakumea bada: puntu 1.

— Musika konpositorea emakumea bada: puntu 1.

Lehen fase honetan gutxienez 33 puntu lortzen ez dituzten eskabideak deialditik kanpo geratuko dira, eta ez dira balioetsiko balio artistikoari dagokion atalean.

2. Bigarren fasea: proiektuaren balioespen artistikoa eta kulturala: gehienez 35 puntu.

a) Gidoiaren kalitatea, orijinaltasuna eta bideragarritasuna: gehienez 20 puntu.

b) Balio artistikoa duen ekimena izatea, edo Gasteizko nahiz bertako herritarren errealitate kultural, sozial, linguistiko edo beste edozein arlotakorekin duen lotura: gehienez 10 puntu.

c) Jatorrizko bertsioa euskaraz: gehienez 5 puntu.

Halakotzat jotzeko gidoia euskaraz aurkeztu beharko da. Gaztelaniazko itzulpena gehitu ahalko zaio, balioespen batzordeko kideen balioespena errazteko.

Filmak Euskal autonomia-erkidegoko zinema aretoetan, zine-jaialdietan eta ikus-entzuzkoen erakustaldietan euskaraz eman beharko dira, eta azpitoluak eduki ahal izango dituzte hainbat hizkuntzatan.

Bigarren balioespen-fase honetan gutxienez 17 puntu lortzen ez dituzten eskabideak deialditik kanpo geratuko dira.

### **22. oinarria. Proiektuak balioestea eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

1. Ekoizpen-aurrekontuaren ehuneko 50eko diru-laguntza emango da, eta gehienez 20.000,00 euro.

2. Banako ekoizleak badira, diru-laguntzak ez du ekoizlearen inbertsioa gaindituko.

Horretarako, baliabide propioak, itzuli beharreko besteren baliabideak nahiz film luzea ustiatzeko eskubideen lagapenaren bitartez lortutako baliabideak erabiliz hark jarritako diru-kopurua joko da ekoizlearen inbertsioetat. Inolaz ere ezingo dira zenbatu produktorearen inbertsio gisa hark jasotako diru-laguntzak, ezta edozein administraziok, entitatek edo telebista-zerbitzu publikoa zuzenean nahiz zeharka kudeatzen duen enpresa publiko edo sozietatek egindako edonolako ekarpenak ere, itzuli beharrekoak ez badira.

3. Laguntza koprodukzio baterako bada, Gasteizko udalaren laguntza inolaz ere ezingo da izan eskabidea egiten duen ekoizlearen benetako partaidetzaren ehuneko 50etik gorakoa. Halaber, ez du gaindituko eskabidea egin duen ekoizleak edo deialdi honen onuradun izan daitezkeen koproduktore taldeak egindako inbertsioaren ehuneko 50a.

Eskabidea aurkezten duen ekoizleak bukaerako produkzioaren ehuneko 25a izan beharko du gutxienez, edo deialdi honen onuradun izan daitezkeen koproduktore multzoak horietako bakoitzaren partaidetzaren batura.

4. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 21. oinarriko lehen fasean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, 2. fasean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehen-tasuna, eskabideari Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

5. Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen diru-laguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua aplikatuko zaio horri.

### **23. oinarria. Gauzatzeko epea**

1. Laguntza eman zaiola jakinarazten zaiolarik, gehienez sei hilabeteko epea izango du onuradunak filmatzen hasteko (jakinarazi aurretik hasia dagoenean izan ezik). Behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko bakarrik luzatu ahal izango da epe hori. Amaitzeko eta lehen kopia estandarra izateko, berriz, hiru urteko epea izango du.

2. Filmatzen hasteko eta amaitzeko datak garapen ekonomikoko zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio: hasiera-data, filmatzen hasi baino gutxienez 10 egun baliodun lehenago, eta halaber, bukatzen denetik 20 egun baliodun igaro aurretik amaiera-data. Jakinarazi baino lehentxeago edo apur bat geroxeago hasiz gero, jakinarazten denetik 10 egun baliodun igaro aurretik.

#### **24. oinarria. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea**

1. Laguntza ematen delarik, lehen ordainketa bat egingo da, ehuneko 80koa.

2. Bigarren ordainketa, ehuneko 20koa, dokumentazio hau jasotzen denean — edonola ere laguntza eman dela jakinarazten denetik sei hilabete igaro aurretik— ordainduko da:

a) Behin betiko aurrekontua eta ordainketa-egutegia.

b) Proiektuak kostu osoa estaltzeko beharrezko den finantzaketaren ehuneko 50 baduela egiaztatzeko agiriak.

c) Langile artistikoez —aktore protagonistek— eta teknikoez —zuzendari eta talde-buruek— sinatutako kontratuak.

d) Erantzukizunpeko aitortpena eta ebazpen ofiziala, beste laguntza edo diru-laguntzarik jaso den.

e) Koprodukzio-kontratu irmoak, (halakorik izanez gero).

f) Filma ustiatzeko eskubideen gaineko kontratu irmoak.

g) Erantzukizunpeko aitortpena, non jasota geratzen den ekoizpena gauzatzeko beharrezko den denboran produkzio-etxeko langileei alta emango zaiela.

h) Agiri hauek jatorrizkoak edo kopia erkatuak aurkeztuz egiaztatu beharko da finantzaketa-plana:

— Telebista-kate edo banaketa-sozietateekin sinatutako kontratuak.

— Onuradunak finantzaketa-planean adierazitako funts propioak egon badaudela eta horien titular bera dela egiaztatzen duen banku-ziurtagiria.

— Onuradunak filma finantzatzeko jasotako bestelako laguntza edo diru-laguntzak egiaztatzeko agiriak.

— Bestelako finantzaketa-iturriak, zeinetatik ekoizpenaren kostua estaltzera bideratuko diren diru-sarrerak etorri diren.

3. Laguntza justifikatuz emateko, onuradunak honako agiriak aurkeztu behar ditu Garapen Ekonomikoaren Zerbitzuan, hiru urteko epean, laguntza jakinarazten denetik kontatuta:

a) Gasteizko Udalean honako hauek gordailuan utzi direla egiaztatzen duen ziurtagiria: obraren kopia bat —Digital Cinema Package formatuan edo pendrive batean—, obraren DVD bat estreinatutako bertsio komertzial bakoitzeko, elkarrizketen zerrenda —jatorrizko bertsioan eta bikoiztu den hizkuntzetako bakoitzean—, sei gida, sei kartel eta sei argazki, eta produkzio-etxeak obraren promoziorako egiten dituen spot, teaser, making of edo bestelako edozein agiriren kopia DVD formatuan, Gasteizen film-ondarea gorde eta zabalkundea emateko interesgarri direlarik —inolaz ere ez zaie erabilera komertzialik emango horiei—.

b) Honako hauek egiaztatzen dituen auditoria-txostena: filmaren kostua, produktoreen benetako ekarpenak eta ekoizpenaren gaineko horien titulartasun-kuotak, baita laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazi den Arabako Lurralde Historikoko enpresa- eta giza baliabideen ehuneko osoa bete dela ere.

c) 20.4 oinarrian ezarritakoa bete dela egiaztatzea.

4. Laguntzaren justifikazioa laguntza eskuratzeko kontuan hartu den aurrekontuaren ehuneko 75era iristen ez bada, proportzionalki gutxituko da, eta ehuneko 75 hori izango da diru-laguntza kalkulatzeko oinarri berria, 22.1 oinarria aplikatzea gora behera.

*II. atala**Film laburrak ekoizteko laguntzak***25. oinarria. Laguntza jaso lezaketen jarduerak**

1. Modalitate honetan, zinema-film laburrak egiteko laguntzak emango dira, edozein hizkuntzatan egiten direlarik ere.

2. Horri dagokionez, edozein euskarritan egindako filmak joko dira film laburtzat, 60 minutik beherako iraupena — gomendatua — dutelarik.

3. Onuradunak ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuaren gutxienez ehuneko 50 bizilekua edo egoitza Gasteizen duten pertsona fisiko nahiz juridikoek egindako lanetara bideratu behar du. Koprodukzioen kasuan, onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari aplikatuko zaio ehuneko 50eko portzentaje hori.

**26. oinarria. Hautatu eta balioesteko irizpideak**

Irizpide eta puntuazio hauek hartuko dira aintzat modalitate honetako eskabideak balioesteko:

a) Proiektuaren interes orokorra: gehienez 15 puntu.

Bereziki baloratuko da zein aukera eskaintzen dituen ekimen artistiko berrietarako eta horiek Gasteizko nahiz bertako herritarren errealitate kultural, sozial, linguistiko edo beste edozein arlotakorekin lotzeko.

b) Ekoizpen-proiektuaren balioespena: gehienez 30 puntu.

— Aurrekontuaren egokitasuna eta finantzaketa-plana: gehienez 10 puntu.

— Inplikaturako enpresa- eta giza baliabideak: gehienez 10 puntu.

Ekoizpen-etxearen, zuzendariaren eta gidoigilearen curriculumak. Produkzio-etxe, zuzendari eta gidoigile ibilbideetan, alde aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, eta — egindako proiektuen kopurua baino gehiago — ikuslegoarengan izandako eragina eta lortutako balorazioa, baita komunikabide espezializatuetan agertutako kritikak ere.

— Film laburra Gasteizen filmatzea: gehienez 10 puntu.

c) Autofinantzaketa edo finantzaketa pribatua zenbaterainokoak diren: gehienez 13 puntu.

Bereziki kontuan hartuko da eskabidea egiten duen ekoizpen-etxearen enpresa-arriskua.

d) Gidoiaren kalitatea: gehienez 20 puntu.

e) Bizilekua edo egoitza iraunkorra Gasteizen duten artista, teknikari eta profesionalen partaidetza ikus-entzunezkoaren ekoizpenean eta garapenean: gehienez 10 puntu.

Gehieneko puntuazioa emango zaio ikus-entzunezkoaren aurrekontuaren 80koa edo hortik gorakoa bada.

f) Jatorrizko bertsioa euskaraz: gehienez 5 puntu.

Halakotzat jotzeko gidoia euskaraz aurkeztu beharko da. Gaztelaniazko itzulpena gehitu ahalko zaio, balioespen batzordeko kideen balioespena errazteko.

Filmak Euskal autonomia-erkidegoko zinema aretoetan, zine-jaialdietan eta ikus-entzunezkoen erakustaldietan euskaraz eman beharko dira, eta azpitoluak eduki ahal izango dituzte hainbat hizkuntzatan.

g) Emakumearen parte-hartzea, zuzendaritza-, ekoizpen- edo gidoigintza-lanetan: gehienez 7 puntu

— Zuzendaria emakumea bada: 3 puntu.

- Produktore exekutiboa emakumea bada: 2 puntu.
- Gidoilaria emakumea bada: 2 puntu.

Gutxienez 50 puntu lortu behar dira diru-laguntza lortu ahal izateko; bazter utziko dira puntuazio hori lortzen ez dutenak.

### **27. oinarria. Proiektuak balioestea eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

1. Diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 60ko diru-laguntza emango da, eta gehienez 8.750,00 euro proiektu bakoitzeko.

2. Laguntza koprodukzio baterako eskatzen delarik, Gasteizko Udalaren diru-laguntza inolaz ere ezingo da izan eskabidea egiten duen ekoizlearen benetako partaidetzaren ehuneko 50etik gorakoa.

Eskabidea aurkezten duen ekoizleak bukaerako produkzioaren ehuneko 25a izan beharko du gutxienez, edo deialdi honen onuradun izan daitezkeen koproduktore multzoak horietako bakoitzaren partaidetzaren batura.

3. Berdinketa egokitzuz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 26. oinarriko a) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, oinarri bereko b) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

4. Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen diru-laguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua aplikatuko zaio horri.

### **28. oinarria. Gauzatzeko epea**

1. Laguntza eman zaiola jakinarazten zaiolarik, onuradunak gehienez 6 hilabeteko epea izango du filmatzen hasteko (jakinarazi aurretik filmatzen hasia dagoenean izan ezik), eta behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko bakarrik luzatu ahal izango da epe hori. Amaitzeko eta lehen kopia estandarra izateko, berriz, 2019ko urriaren 31 arte, salbu eta laguntzak emateko ebazpenean balioespen batzordeak zailtasun berezia duten obrak direla aitortzen badu (animaziokoak esaterako). Kasu horretan amaitzeko eta lehen kopia estandarra aurkezteko epea 2020ko urriaren 31ra luzatu ahalko da.

2. Gasteizko udalari jakinarazi behar zaizkio filmatzen hasteko eta amaitzeko datak: hasiera, filmatzen hasi baino gutxienez 10 egun balioudun lehenago, eta halaber, bukatzen denetik 20 egun balioudun igaro aurretik amaiera-data. Jakinarazi baino lehentxeago edo apur bat geroxeago hasiz gero, jakinarazten denetik 10 egun balioudun igaro aurretik.

### **29. oinarria. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea**

1. Laguntza ematen delarik, lehen ordainketa bat egingo da, ehuneko 80koa.

2. Bigarren ordainketa, ehuneko 20koa, film laburraren ekoizpena bukatu eta jarraian adierazten diren agiriak Gasteizko Udalari eman ondoren egingo da. Agiri horiek aurkezteko epea 2019ko urriaren 31n amaituko da, hau barne, zailtasun berezia duen obrak direnean izan ezik, horietarako epea 2020ko urriaren 31n amaituko da eta.

a) Gasteizko Udalean honako hauek gordailuan utzi direla egiaztatzen duen ziurtagiria: obraren kopia bat —Digital Cinema Package formatuan edo pendrive batean—, obraren DVD bat estreinatutako bertsio komertzial bakoitzeko, elkarriketen zerrenda —jatorrizko bertsioan eta bikoiztu den hizkuntzetako bakoitzean—, sei gida, sei kartel eta sei argazki, eta produkzio-etxeak obraren promoziorako egiten dituen spot, teaser, making of edo bestelako edozein agiriren kopia DVD formatuan, Gasteizen film-ondarea gorde eta zabalkundea emateko interesgarri direlarik —inolaz ere ez zaie erabilera komertzialik emango horiei—.

b) Honako hauek egiaztatzen dituen faktura eta kontratuak: produktoreen benetako ekarpenak eta ekoizpenaren gaineko horien titulartasun-kuotak, baita laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazi den Gasteizko enpresa- eta giza baliabideen ehuneko osoa bete dela ere.

c) Kontratu eta faktura bidez egiaztatzea 25.3 oinarrian ezarritakoa bete dela.

3. Laguntzaren justifikazioa laguntza eskuratzeko kontuan hartu den aurrekontuaren ehuneko 75era iristen ez bada, proportzionalki gutxituko da, eta ehuneko 75 hori izango da diru-laguntza kalkulatzeko oinarri berria, 27.1 oinarria aplikatzea gora behera.

### III. kapitulua

#### Gidoiak idazteko laguntzak

##### **30. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak**

Modalitate honen barruan, fikzio- nahiz animazio-gidoi zinematografikoen sorkuntzetarako emango dira laguntzak, edozein formatutan egiten direlarik ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan.

Ez dute laguntza jasotzeko aukerarik izango dagoeneko guztiz garatuta dauden gidoiek, eta gidoi-tratamendu bakarra onartuko da aurkeztea.

##### **31. oinarria. Eskabideak eta dokumentazioa**

1. Deialdi honen eranskinetako ereduaren arabera aurkeztu behar dira eskabideak. Eskabidea bereizita aurkeztuko da, gutun-azal, pen drive eta A eta B CDak aurkeztean.

2. Ondoren adierazten diren dokumentuek anonimoak izan beharko dute.

2.1. Paperezko dokumentazioa: identifikazio-goiburu bera duten bi gutun-azal aurkeztu behar dira, A eta B letren bidez behar bezala bereizita.

2.2. Euskarri digitaleko dokumentazioa: Euskarri digitalean aurkez daiteke (pen drive edo CD). Bakoitzean identifikazio-goiburu bera jarriko da, A eta B pen drive edo CD gisa bereizita.

###### • A gutun-azala / A Pen drivea / A CDa

Identifikazio-goiburua idatzi beharko da gutun-azalaren kanpoaldean, eta ez barruan ez kanpoan ez da ageri beharko egilearen izena. Barruan, dokumentazio hau sartu beharko da:

a) Gidoi-proiektuaren argumentuaren laburpena, gehienez ere hiru orrikoa.

b) Gidoi-proiektuaren tratamendua, sekuentziaz sekuentzia, 15 orritik 30era artekoa.

c) Elkarrizketa-sekuentzia, 3 orritik 5era bitartekoa.

d) Gidoigilearen proiektuaren oroitidazkia, non azaldu beharko den proiektuaren interesa eta ematea espero den izaera, gehienez hiru orrikoa.

###### • B gutun-azala / B Pen drivea / B CDa

B gutun-azalaren kanpoaldean, A gutun-azaleko identifikazio-goiburu bera idatzi beharko da Barruan honako dokumentazioa sartu beharko da:

a) NANaren fotokopia.

b) Gidoi-egileen ekonomi jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

c) Gidoigilearen ibilbide artistikoa.

d) Erantzukizunpeko aitortpena, non adierazten baita zinema-aretoetan erakusteko kalifikatuta dagoen film luzeren batean gidoigile gisa ageri dela —film horien izenburuak eta ekoizpen urteak adierazi beharko dira—.



e) Erantzukizunpeko aitortpena, non jasotzen baita ez duela beste edozein administrazio publiko edo erakunde pribatuk xede bererako emandako laguntzarik jasotzen.

f) Erantzukizunpeko aitortpena, non adierazten baita aurkeztutako tratamendua orijinala eta orain arte horrela garatu gabea dela.

g) Jabetza Intelektualaren Erregistroan gutxienez gidoi zinematografiko bat erregistratua duela egiaztatzea.

A gutun-azaletako gidoi-proiektuak kalifikatu ondoren —egileen izenak jakin gabe—, B gutun-azalak irekiko dira, eta egileen eta horien ibilbideen inguruko guztia balioetsiko.

### **32. oinarria. Hautatu eta balioesteko irizpideak**

Modalitate honetako eskabideak bi fasetan balioetsiko dira, ondoren adierazten diren irizpen eta baremo hauei jarraiki:

1. Lehen fasea: Gidoiaren balioespena: gehienez 80 puntu.

a) Aurkeztutako proiektuaren tratamenduaren originaltasuna eta kalitatea: gehienez 50 puntu.

b) Proiektuaren interesa: bereziki baloratuko dira proiektuaren bideragarritasuna eta gauzatzeko benetako aukera, interes tematikoa eta geografikoa, eta proiektuaren genero-ikuspegia: gehienez 25 puntu.

c) Euskaraz idatzita egotea: gehienez 5 puntu.

2. Bigarren fasea: gidoigilearen balioespena: gehienez 20 puntu.

a) Gidoigilearen ibilbide artistikoa: gehienez 10 puntu.

Bi puntu emango dira n zinema-aretoetan erakusteko kalifikatuta dauden film luzeetan gidoigile gisa ageri den film bakoitzeko; izenburuak adierazi

b) Emakume batek idatzia izatea: gehienez 10 puntu.

Gutxienez 50 puntu lortu behar dira diru-laguntza lortu ahal izateko; bazter utziko dira puntuazio hori lortzen ez dutenak.

### **33. oinarria. Proiektuak balioestea eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

Balioespena egiteko, proiektuak alderatu egingo dira, aurreko oinarrian adierazi diren balioespen-irizpideak aintzat harturik alderatu ere.

1. 5.000,00 euroko laguntza emango da, Modalitate honetako aurrekontua agortu ezean, eta balioespen-batzordeak ontzat joz gero, laguntza 10.000,00 eurora igo daiteke.

2. Modalitate honetan aurreikusten diren laguntzak ez dira helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituenekin bateragarri.

### **34. oinarria. Laguntza ordaintzea**

a) Diru-laguntzaren ehuneko 50 esleipenaren ebazpena ematen delarik ordainduko da.

b) Gainerako ehuneko 50a 2019ko azaroaren 1.etik aurrera ordainduko da, diruz lagundutako sorkuntza-lana igorri ondoren, baita Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatu izanaren egiaztageria ere.

### **35. oinarria. Laguntza jasotzen duen produkzioa egiteko epea**

1. Laguntza eman zaiola jakinarazten zaiolarik, 2019ko azaroaren 1era arte izango du gidoi-gileak behin betiko gidoi zinematografikoaren ale bat aurkezteko udalean, deialdian onartzen diren formatuetako edozeinetan (paperean edo pdf formatuko euskarri digitalean), eta Jabetza Intelektualaren Erregistroan izena-ematearen kopia, laguntzak kudeatzen dituen zuzendaritzan.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 2an

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
*LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*

**Eskabide-orria**

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/93/76093.pdf>

**I. eranskina: Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen deklarazioa**

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/87/76087.pdf>

**II. eranskina: Proiektua garatzeko aurrekontua**

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/88/76088.pdf>

**III. eranskina. Produkzio-etxearen ibilbidea eta hurrengo bi urteetako ekoizpen-aurreikuspenak**

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/89/76089.pdf>

**IV. eranskina: Finantzaketa-plana**

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/90/76090.pdf>